

# ...eta **Kitto!**

685 zkia. 2009-VII-3

ASTEKARIA



## Auto igoerarako motorrak berotzen



**MULTIOPTICAS**

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

kristalak barne

**77** euro



**mó**  
MULTIOPTICAS

disenatuko  
mila eta bat  
bertan merkatu  
prezio berrari

Uztarburua 2 • Tel. 945 50 95 29 • Euzkadi  
[www.comerciooptica.com](http://www.comerciooptica.com)

© 2009 MultiOpticas. All rights reserved.



Badatoz-badatoz  
ostro  
barririk!!

Eskeerrikaske darsin!



**BAZKIDE IZAN NAHI DUT**

**...eta kitto!**

...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11 solairuareta - EIBAR - 943 20 67 76 - elkartea@etakitto.com

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonoa:

e-maila:

Lanbidea:

Jaiotze data:

kontu zenbakia (20 digito):

**urteko kuota**

- 16 urteik behera ditut: 4,25 €

- Langabea, ikaslea, jubilatua, etxeakoandrea: 9,56 €

- Lanean dihardut: 37,65 €

- Borondatez, diru gehiago eman nahi dut: €



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Escuderia Eibar

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten enshera

**ESKILLARA-BARREN.-** Eskilaretako beheko laugunea. "Eskillara-barrenian topau neban etzinda".

**ESKILLARA-BURU.-** Mailarte, eskilaretan izaten den laugunea edo atsedena hartzeko unea. Gaztelarazko 'descansillo'. "Eskillara buruan barriketan, lapikua erre jakue hiru andreri".

**ESKOLAKUA IZAN.-** Eskola-sasoa adierazteko. "Eskolakuak giñanian, matxin-garratzak batzen genduzen, egarrixa kentzeko"

## ESKUTITZAK

### ARRATEBALLE R.I.P.

I  
Arrateballek badau  
Izana beria  
Goitik behera albora  
Etxe illeria  
Oin gura detse egin  
Kriston aberia  
Ta guk jo nahi genduke  
Protesta geuria  
Bertsotan egiteko  
Hartuaz eria

II  
Lezeta, Mendigoitxi  
Eta Sumendixak  
Untzeta, Arizmendi  
Arekixta bixak  
Orain artian dira  
Izan basarrixak  
Aurki hasiko dira  
Hor be komedixak  
Soluak ziranetan  
Nagusi sasixak

III  
Abeletxe, Barrundi  
Iñarre ta Narru  
Desagertze bidian  
Urte gutxi barru  
Zementuz beteko da  
Zelai ta esparru  
Ortuan faltako da  
Aza edo porru  
Tristorian gaiñetik  
Sortzen dau amorr

IV  
Makakorrerik ezta  
Entzumgo kortetan  
Kotxe zaratia bai  
Basarri atetan  
Goizian goiz jaikitza  
Ekin, baiña zetan  
Txakurrik be ez dago  
Aurreko kasetan  
Ointxe bai doiazela  
Danak oporretan

V  
Bromia ez da gero  
Egin nahi dabena  
Azitaindik Maltzara  
Harrizko andena  
Basarrixak hor dira  
Hara ba!! Ze pena!!  
Progreso izenian  
Egiten da dena!!  
Entzuten da doiala  
Hara Astelehena

VI  
Baztarrak harrotuta  
Gero baimen eske  
Legiak dira hemen  
Batzuentzat merke  
Zenbaittek errezegi  
Gehixenentzat neke  
Aintarixekin batzuk  
Tratu ona dake  
Jakín bihar litzake  
Baiña, zeren truke

VII  
Hamaikakua bata  
Hamahiru bestiak  
Torre bi jasotzeko  
Dabiz hor ustiak  
Lana eingo ei dabe  
Zahar eta gaztiak  
Zer emoten dau goitik  
Beheia ikustiak  
Eta hor daren danak  
Mendean eustiak?

VIII  
Iñona entzun barik  
Hor doiaz aurrera  
Matzarikua ez zan  
Makala aukera  
Azpiegitura ta  
Orubia bera  
Hasi besterik ez zan  
Ein bihar gaiñera  
Barrin barriz hastia  
Zergaitik ete da?

IX  
Agur pauso bidia  
Antxiña ebagixa  
Berez lotzen dabena  
Etxe ta elixa  
Andabide deritxo  
Sakratua ixa  
Baiña oin bihar dabe  
Gauzia barrixa  
Dirua dabelako  
Jaungoiko nausixa.

TRUNBOI - DOÑUA: Bizkaiko aberatsak

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Askok esaten didate ze ausarta naizen eta zela-ko meritua dudan; hori horrela da, baina ez da. Guk aurrera egin behar dugu eta ez dago beste biderik: aurrera egin, edo ito. Egoera latzenetan ere, ez dugu beste biderik gu geu izateko bidean. Tarteetan, harreman batzuk ez bagaituzte onartzen, harreman horiek galdu egin beharko dira"  
(Amaia, emakume transexuala)


"Enpleguak kotizatzen du, eta 2,1 pertsona behar dira kotizatzen, batek etekina jasotzeko. Horretarako, %75eko enplegu maila behar dugu. 2007an, langabezi teknikoak %67koa zen; horrek erakusten du ez gaudela nahikoa jende kotizazioari eusteko. Pentsioen kolpe handia 2040 aldean etorriko da; ezer ez bada egiten, hor izango da eten handia"  
(Ane Bustindui, LKS-ko aholkularia)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

**ARRATEKO JAIK PRESTATZEN**

Arrateko jaiak hurbiltzen ari dira eta horiek prestatzeko lanak martxan daude jada. Horrela, Arrateko jaietan txosnak jartzeko asmoa dutenek Pegoran aurkeztu beharko dute euren eskaera uztailaren 1etik 7ra. Txosnen kopuru eta neurriak egongo den tokiaren arabera emango dira, bestetik. Gainera, txosnen gaineko bilera hilaren 8an egingo da 12.00etan Udaletxeko 3. solairuan. Udaleko Jai Batzordeak, bestalde, Arrateko jaietako egitaraua prestatzeko bilera deitu du uztailaren 7rako 19.00etan Portalean.

**PEATONALIZAZIOA GAUR**

Arrateko Auto Igoera jokiatuko dela-eta, herriko erdigunea gaur peatonalizatuko da 14.00etatik 22.00etara autoen egiaztapenak egin eta Untzagan itxitako gunea jartzeko. Bihar, bestetik, 12.00etatik aurrera debekatuta egongo da Azitaingo industrialdeko zati batean aparkatzea (domekako 24.00ak arte). Arraterako errepidea 09.00etatik 19.00etara itxiko da bihar eta 07.45etatik 14.00etara domekan.

**KTB-REN AZKEN EMISIOA**

KTB Eibarko telebistak ekainaren 30ean eman zuten azken emisioa. Hemendik aurrera KTB ikusten zen katean Teledonosti ikusiko da, beraz, aurrerantzean ez da herriko albistegia ikusi ahal izango, ezta bertan garatzen ziren beste saiok ere.

**Azken urte bietako balantzea egin du EAJ-k****EIBARKO EAJ-K HERRIKO KOMUNIKABIDEAK BILDU ZITUEN EGUAZTENEAN**

Batzokian legealdi honetako urte bien inguruko balorazioa egiteko. Euren berbetan, "balantzea positiboa da". Bestetik, EAJ-k gobernu-batzarreko kide bezala egiten duen lana azpimarratu zuten.

Herrian garatzen ari diren proiektuetan EAJ-k izan duen jarrera azaldu zuten. Txontako berreraketaren kasuan, eurek proiektu modernoa eta bizi-kalitatea bermatzen duena defendatzen dutela azpimarratu zuten: "Orain hutsetik hasi beharko da eta alderdi bi horiek hartu behar dira kontuan". Errebaleko merkataritza gunearekin, bestetik, El Corte Inglesek sorturiko desoreka egokitzea nahi du EAJ-k. Hala ere, gaur egungo egoera aurrean, PSE-rekin berba egingo dutela aipatu zuten. "Kezkatuta gau-



Gustura azaldu da EAJ azken bi urteotan egindako lanarekin. / EKHI BELAR

de eta beste aukera batzuk aztertuta behar dira". Eurek beti zezen-plaza estali eta erabilpen anitzekoa nahi izan dutela aipatu zuten, eta Oroitzapen Historikoko Gunea sortzeko proiektu bat garatuko dutela berehala. Bestetik, Erisonoko gunea teknologikoaren alde agertu zen alderdi jeltzalea. "Egia da proiektu honek ingu-

rumenean eragin handia daukala, baina eragin handiagoa izango du herrian Teknikerrek hemendik alde egiten badu".

EAJ gustura dago azken urte bietan egindako lanarekin, "bai alderdi bezala, bai gure zinegotziek egindako lanarengatik". Horrela, etorkizunari "handi-nahikeriaz eta baikortasunez" ekiten diote jeltzaleek.

**Nagusiek hainbat eskaera azaldu dizkie Udalari****DEBABARRENAKO NAGUSIEN KONTSEILUAREN HIRI LAGUNEN**

Batzordeak, Felix Elkoroiriberen gidaritzapean, Eibar 'Nagusien Hiri Lagun' bezala baloratzen duen txostena aurkeztu berri du Udalean. Informearen arabera, Nagusien Kontseiluak ailegarratasunean, nagusientzako instalakuntzen eta zerbitzuen gehikuntzan edo gunen berdeen hazkuntzean hobetu behar du Eibarrek Osasunaren Erakunde Mundialak zehaztutako 'Nagusien Hiri Lagunen' katalogoan sartzeko.

Proiektuaren helburuak honakoak dira: hiriak nagusiekiko duen egokitzapen maila ezagutu; nagusien arazoez sentsibilizatu; hiri nagusien beharrei egokitu, eta hiriaren eraldakuntzan parte hartu proposamen eta alternatibekin. Nagusien Kontseiluak zeruzabaleko gunen eta eraikuntzetan, garraioetan, etxebizitzetan eta gizarte parte-hartzean neurriak hartzea eskatu dio Udalari. Horrela, somatutako gabeziak konpontzeko akzio planak herriko nagusien elkartari eta aditu ezberdinen artean konpondu beharko dira Nagusien Kontseiluaren iritzi.

**Hainbat iradokizun**

Zeruzabaleko eremu eta eraikinei dagokienean, auzoak zentruarekin konektatuta egoitea igogailu mekaniko, garraio publiko edo oinezkoentzako guneen bitartez; oinezkoek semaforoaren gaineko lehentasuna izatea; espaloiak ondo eraikita

eta irristaezinak izatea; oinezkoentzako oztupoak murriztea; komun publikoak gehitzea; pasabide eta bidegorriak eraikitzea; eta mendiko gunek indartzea, besteak beste.

Garraioaren gainean Bizkaiako eredia jarraitzea eskatzen dute, hau da, "garraio publiko herriko eta hiriarteko eskuragarria". Bestetik, hiriarteko garraioetan dauden frekuentzia arazoak konpontzea eskatzen dute (Donostiara, Gasteizera...). Gainera, autobus geraleku batzuetan informazio falta salatzen dute, eta parkingetan doaneko leku faltaren eta hauen prezio altuen kexu dira.

Nagusien Kontseiluak, aldi berean, beharrezkoa ikusten du nagusiei diru-laguntzak ematea hauen etxebizitzak zaharberritu eta kontserbatzeko.

Parte-hartzeari dagokionean, bestalde, Nagusien Herriko Kontseiluaren sorrera beharrezkotzat jotzen dute herriko kontuetan parte hartzeko.





## Portalera, Eulogio Garatetik

### PORTALEAN ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUETARA SARBIDEAK ERRAZTEKO

asmoarekin, igogailu berria jarzeko beharrak hasi dituzte. Horregatik, astelehenaz geroztik, eraikin barruko instalazio eta sail guztietara sartzeko Eulogio Garate kalean (Portalea eraikinaren atzealdean) dagoen atea erabili beharko da. Juan San Martin liburutegira sartzeko, berriz, Umeen Liburutegitik joan beharko da (Bista Eder kaletik). Lanak abenduan amaitzea dago aurreikusita eta aldaketak ordura arte egongo dira indarrean.

### Udako ordutegiak

Bestalde, uztaila eta abuztuan udako ordutegia izango da indarrean Udaleko bulego



Abendura arte Portalearen atzeko aldetik sartu beharko da Kultur Etxera. / EKHI BELAR

eta bestelako instalazioetan: Pegora bakarrik goizez egongo da zabalik, astelehenetik barixakura, 09.00etatik 13.30etara. Portalea, berriz, uztailean 08.00etatik 21.00etara egongo da zabalik eta abuztuan 08.00etatik 14.00etara. Juan San Martin liburutegiak uztailean 09.00etatik 13.30etara eta 16.30etatik 19.30etara zabal-

duko du eta abuztuan 09.00etatik 13.30etara (abuztuaren 10etik 16ra itxita egongo da). Armagintzaren Museoa martitzenetik barixakura zabalduko dute, uztailean 16.00etatik 20.00etara eta abuztuan 10.00etatik 13.00etara. Eta Errota gaztelekua, berriz, itxita egongo da bai uztailean eta baita abuztuan ere.



Unai  
Artetxe

## Hipokritak


**H**ainbeste urteren ostean zuei gauza bat aitortzeko unea heldu dela uste dut. Jakin badakit kanpotik aurkakoa dirudiela, baina ez, ez naiz gizaki perfektua. Nik ere badituzt nire akatsak, zuek guztiak bezala. Nik ere badituzt nire arazoak. Buruari bueltak eman eta eman aritu naiz, nire sekretua zuei noiz onartu erabaki nahian. Zorionez, iritsi da momentua. Heldu da barnean sentitzen dudana pisu hau guztia gainetik kentzeko garaia. Informazio jalea naiz. Bai, bai, irakurri duzen moduan. Hori da nire sekretua. Bizirik irauteko informazioa behar-beharrezkoa dut. Berdin dio noiz edo nola lortu. Igual dio goizean, eguerdian, arratsaldean edo gauean izan, albisteak bata bestearen atzetik irensten ditut, irratiz, telebistaz, egunkariz edo Internetez. Eta bertan topatutako berriek samina sortzen didate askotan. Egunean milaka ume gosez hiltzen direla irakurtzean. Hiesak urtean zenbat jende akabatzen duen jakitean. Heterosexuala ez den batek jaso duen erasoaren berri izatean. Egunero-egunero emazte ohia labankadaz garbitu duen senarrari buruzko albistea iristean. ...eta kitto!-ko ale osoa beharko nuke den-denak aipatzeko. Kazetaria naizen aldetik, ostera, komunikabideen papera ere defendatu behar... Eta hala egingo dut, gustura gainera, berripaperekin irribarrea ere eragiten didatelako askotan. Real Madrilek futbolari batengatik ordaindutako dirutzaren berri irakurtzean. Elizak preserbatiboari buruz duen iritziaren ohartzekoan. Kotxeak saltzeko iragarkietan biluzik ageri den neskaen gorputz erakargarria iristean. Hipokritak.

## Auzitegiak atzera bota du Aralar eta Astinduren salaketa Erisonoren auzian

**DONOSTIAKO AUZITEGIAK ATZERA BOTA DU ARALAR ETA ASTINDU PLATAFORMAK** Erisonoko lanak geldiarazteko egin zuten eskaera. Auzitegiaren ustetan, obra hauek Tekniker Fundazioak aurretik aurkeztutako dokumentazio eta lizentziak justifikatzen dituzte. Aralar eta Astinduk adierazi zutenenez, lur mugimendua obra txikia izango balitz bezala egin ditu Teknikerrek, baina eurentzat "argi dago" hori ez dela horrela, "mugimendua hedadura han-

dikoa da eta behin lana eginda ezin izango da lurra bere jatorrizko lekura bueltatu. Gainera, hondamendi ekologikoa da". Horrez gain, zera salatzen zuten: "Lehenik eta behin obra egin dute eta gero dena legalizatzen saiatzen dira".

Aralar eta Astindu Teknikerrek bere proiektua Eibarren garatzearen alde agertu dira hasieratik, baina ez Erisonon. Horrela, Matxaria edo Ibur Erreka proposatu zuten Teknikerren Parke Teknologikoaren kokaleku bezala.



Tekniker Matsarian edo Ibur Errekan egitea proposatzen dute Aralarrek eta Astinduk.

## Azkoitian lan-istripuan hilda

**AURREKO BARIXAKUAN AZKOITIAKO OINARTXO INDUSTRIALDEAN** gertatutako lan-istripuan Eibarren bizi zen 20 urteko gaztea hil egin zen, hondeamakina batek azpian harrapatuta. Horren aurrean UGT sindikatuak istripua gertatzeko arrazoiak ikertzeko eskaera egin du eta aurten EAEko enpresetan hildako beharginak 27 direla salatu nahi izan dute aipatutako sindikatuko ordezkariak. Beharginak 7 hilabetez ziharduen eraikuntza enpresa horrentzat beharrezko eta sindikatuen berbetan, "esperientzia faltak eta prebentziorako formakuntzarik ez jasoteak ondorio larriak ekar ditzakete". LAB sindikatuak deituta, berriz, kontzentrazioa egin zen astelehen arratsaldean Untzagan.

asteko

966

datua

liburu irakurri dira Juan San Martin Liburutegian apirilaren 20tik ekainaren 14ra bitartean, Li(buru-hausgarriak) kanpaina martxan egon den bitartean. 6-7 urte bitartekoek 317 irakurri dituzte, 8-11 bitartekoek 457 eta 12 urtetik gorakoek 192. Eibarri buruzko liburuak izan dira kasu gehienetan.

## Egogaineko beharginak lan baldintza duinen alde

**EGOGAIN GERONTOLOGIA ZENTRUKO BEHARGINEK PROTESTAN** jarraitzeko asmoa azaldu dute, ELA sindikatuak zabalduko oharrean adierazitakoaren arabera. Foru Aldundiak kudeatzen duen egoitzako erizain-laguntzaileek diotenez, "hobetu beharra dagoen hitzarmenarekin kaltetuta gaude. Orain dela lau urte probintzia mailako lehenengo hitzarmena sinatu zenez geroztik gure lan-baldintzek eta soldatek okerrera egin dute. Hori dela eta, aurtengo otsailaz geroztik lanuzteak egiten dihardugu eta Eulen enpresak azpikontratuta beharrean dihardugunok gure mobilizazioen arrazoiak azaldu nahi ditugu".

### Beharginen eskaerak

Gauzak horrela, lanpostuen egonkortasuna ezinbestekotzat jotzen dute: "Administrazioak zerbitzua lehiaketara ateratzen



Protestak eta manifestazioak probintzia osora zabaldu dira azken aldian.

duen bakoitzean gure lanpostuak arriskutan ikusten ditugu. Bestalde, Foru Aldundiko beharginek egiten duten behar berbera egiten dugunez eta ardurak ere berberak direnez geure soldatak euren parekoak izatea eskatzen dugu. Horrez gain, orain lau urte geneuzkan %100ean konplementatutako bajetara bueltatzeko eskaera egin nahi dugu. Hirurtekoak maila duinera ipintzea nahi du-

gu; lehen 40'32 euro kobratzen genituen eta orain, berriz, 18 euro. Horrez gain, orain lau urte norberaren premietarako 3 egun genituen eta orain bat ere ez. Eta jai-egunetan beharra egitearren ordu bakoitzeko 2'14 euroko plusa ordaintzen digute eta gaueko plusa, berriz, 2'32 eurokoa da". Azken asteotan egin duten moduan, asteburuetan auto-karabanetan protestan jarraituko dutela aurreratu dute.

Oin dala hamar urte

1999-VII-2 / 281. ZKIA.



- Iñaki Zabaleta izendau eben San Andreseko parroko berrira. Joxin Arregiren tokixa hartu eban, azken honek bihotzekua izan eta gero. Erabagixa hartuta eguan, Arregi Teologixia egitera Bartzelonara juan bihar zalako.
- Abenduan funtzionatzen hasiko ziran gure herriko lehelengo eskillarak hasi ziran egitten. Hórek eskillarok Txaltxa-Zelaitxo jubilauek etxera eta Eibarko Txikitotik Txaltxa-Zelaira zijuazanak izango ziran.
- Estatu osoko jubentil maillako atletak izan ziran Unbeko instalaziño barrixetan mailla horretako Espaiñiako txapelketak jokatzin. Gogorra izan zan txapelketia gurera ekartzia: 7-6 irabazi gentsagun Torremolinosi botuetan.
- Mexikoko Zacatecaseko Los Pérez de Nochistlán mariatxiaren partaidiak bigarrenez etorri ziran gurera. Unibersidade Laboralcan ostatu hartu eta, Amañako jaixekin hasitta, Euskal Herrixan ibilli ziran handikhona.

Oin dala 365 egun

2008-VII-4 / 644. ZKIA.

- Eneko Anduezak zinegotzi kargua hartu eban, Miguel de los Toyos alkate berrira ordezkatur. Aurretik Iñaki Arriolaren sekretarixua izandakua Urbanismo eta Obretako batzordeko buru moduan jarraitu dau.
- Julixoko 2xan Eibarko Udaletxian ospatu zan Gipuzkuako Batzar Nagusixetako Osoko Bilkura Solemne eta Ibiltarixia. Aurrekua 23 urte lehenago egin zan, 1985ian, Jesus Mari Agirre alkate zala.
- Armerixa Eskolako andrazkuen lehelengo promozioñokuak bildu ziran, eskolako historixako 1972-73 ikasturteko sasoi haura gogoratzeko. Deixa eskolako Ikasle Ohien Alkartiak egiñ etsen.
- Errebal Plataformakuak Tour berezixia antolau eben, karreriarren perfillak-eta aprobetxatur. Aurretik, Topalekuan erakusketa egiñ eben, hasierian onartutako proiektuaren alde 750 siñadura bilketarekin.





## Iber-Leiber lantegiaren itxiera salatu dute

**ELA ETA LAB SINDIKATUE-TAKO ORDEZKARIEZ OSATUTAKO** Iber-Leibar enpresako batzordeak agerraldia egin zuen aurreko barixakuan Eibarraren, Itziarko lantokiaren itxiera salatzen. Sindikatuetakoko ordezkarien berbetan, "Leiber multinazionalaren barruan dagoen enpresa da, aluminio-estanzioan dihardu eta 80 behargin dauka. Taldeak, Itziarko lantokiaz gain, Alemanian eta Polonian dauka lantegiak. Ekainaren 4rako deitutako bileran, Madriletik etorri zitzaigun abokatu bat, Itziarko lantegia ixteko botereak zituela esanez eta, gainera, hala egingo zuela azalduz".

Gauzak horrela, beharginek enpresaren erabakia gogor kritikatu eta salatu nahi dute:

*"Deslokalizazioaren estrategia-ri erantzuten dion neurria da, eskualdean bertan hamaika enpresatan dute hemen baino egoera ekonomiko eskasagoa. Enpresaren egoera ekonomikoa saneatua dago, ez dago aparteko zorrik, baina egoera aprobetxatu nahi dute lana beste herrialde bi horietara eramateko, 80 behargin kale gorrian lagata".*

Bestalde, enpresaren aldetik "mehatxuak" jasotzen dihardutela gaineratu dute eta agerraldiaren bezperan bertan, langilerik ez zegoela aprobetxatuta, "kamioiekin sartu eta produkzioa eraman dutela" salatu zuten. Horren aurrean hainbat mobilizazio egin dituzte orain arte eta hala jarraituko dutela adierazi dute.

## Atentatuaren aurkako kontzentrazioa

**EIBARKO UDALAK DEITUTA**, ETA-ren atentatuaren aurkako kontzentrazioa egin zen hilaren 20an udaletxe parean. Kontzentrazioa bildutako herritarrek bat egin nahi izan zuten PSE-EE, EAJ, PP eta Ezker Batua alderdiek Eduardo Pueyes Garciaren hilketaren inguruko gaitzespenarekin.



Kontzentrazioa zapatu eguerdian egin zen. / Felix Morquecho

# anzorik anzo



## Orbea kiroldedia martxa betean


**Ekainaren 22an inauguratu zuten Orbea kiroldedia, ekitaldi xume batekin:** Miguel de los Toyos alkateak, aldamenenean Iñaki Galdós eta Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko ordezkariak zituela, zinta moztu zuen aurrekuaren ondoren eta, jarraian, zinegotziek eta ekitaldira gerturatutako gainontzeko guztiek kiroldedi berriko instalazioak ezagutzeko aukera izan zuten. Egunean bertan, arratsaldetik aurrera kiroldedia erabiltzen hasi ziren. Instalazio berrietan, besteak beste, muskulaziorako makinak, gimnasia egiteko guneak, igerilekua eta spa-tratamenduetarako gunea daude. Beharrek 6 milioi euroko aurrekontua izan dute. Kiroldedi berria zabaltzearekin batera, datozen hilabeteotan 1.000 bat bazkide berri egitea aurreikusten dute Kirol Patronatoko arduradunek, horrela 9.000 abonatu izatera ailegatu arte.

## eibar kaleka

### Jazinto Olabe

Romualdo Galdos kalearen aldamenean, Ipurua auzoan dago Jazinto Olaberri eskainitako plaza. Ignazio Zuloagarekin batera, herriak emandako margolarien artean ezagunetakoa izan zen Olabe. Arraindikale kalean 1877an jaioa, 9 urterekin Argentinara joan zen eta han hasi zituen dibujo ikasketak. Eibarko Dibujo Akademiako zuzendaria izan zen eta, besteak beste, Karlos Elgezua eta Lukas Alberdi ikasle izan zituen.

**Pegora kopurua: 6. Erroldatutakoak: 170.**



Arrate Kultur Elkartearen ekimenez munduko toki ezberdinetako irudiak izango dira ikusgai uztaillaren 7 eta 8an San Andres elizaren klaustroan (22.30etan). Diaporamen bitartez Iñaki Caperochipi, eta Asier Aranzabal eta Mila Gallastegik, Zetaren Ibilbidean eta Iranen, hurrenez hurren, ateratako argazkiez gozatu ahal izango da.

**B**idaia batean, maleta edo motxilaz gain, ia inoiz faltatzen ez dena argazki kamera da. Bakoitzak bere barnean irudi eta momentuak gordetzeko kapazitatea dauka, baina sentsazio horiek gordetzea ezinezkoa bazaio ere, argazki kamerak oroitzapenak irudikatzeke ahalmena du. Gainera, bakoitzarentzat baino, besteei bidaiean ikusitakoa azaltzeko lagungarriak izaten dira argazkiak, nahiz eta bertan bizitakoa ezin sentitu.

Diaporamak argazki bildumak erakusteko forma bat dira. Horrela, diapositiben bitartez argazkiak pasatzen dira, musikaz girotuta. Modu honetan irudiek beste dimentsio bat hartzen dute, hartzailearengana



Asia eta Afrikako irudiek gozatzeko aukera izango da aurtan.

## Mundua iruditan San Andreseko klaustroan

beste sentsazio batzuekin helduz, ez argazkien bakardadearen hoztasunarekin.

### Zetaren Ibilbidea

Iñaki Caperochipi argazkilari zarauztarrak ia mundu guztian zehar bidaiatu du, batez ere Afrika eta Asian. Bidaia guzti horiek bere argazki kamerarekin izoztu ditu, ondoren, publikoari bere esperientzia eta bizitakoak azaltzeko. 2007an, beste 9 lagunekin batera, argazki kamera hartu eta 25 egunetan zehar Zetaren Ibilbidearen zati bat egin zuen *“Uzbekistanen hasi, Kirgistan gurutzatu eta Txinan amaitu genuen. Ia ezinezkoa da hain denbora gutxian ibilbide guztia egitea, urtebete beharko litza-teke horretarako”*.

Uzbekistaneko hiri mitikoak, Kirgistaneko paisaiak eta mendebaldeko Txina musulmana gustatu zitzaion gehien Iñakiri. Baina ez hori bakarrik. *“Oso pertsona abegikorrek ezagutu genituen. Eurei argazkia atera-*



*tzeko oso adeitsua izan behar zara; berba eta barre egin. Argazkiak ateratzen ere laga behar zaie; izan ere, eurentzat gu gara arraroak. Uzbekistan eta Kirgistaneko jendea zoragarria da”*.

Argazkilari zarauztarraren irudiak uztaillaren 7an egongo dira ikusgai San Andres elizako klaustroan 22.30etatik aurrera.

### Iraneko topikoak sahiesten

Asier Aranzabal eta Mila Gallastegiren eskutik, bestalde, Iraneko begirada ezberdin bat helduko da uztaillaren 8an San Andres elizako klaustroa 22.30etatik aurrera. ‘Iran. Topikoen aurkako bidaia’ izenburupean, Asiako herrialde honen gainean dauden aurreiritziak desarmatzen saiatuko da bikotea.

Topiko eta ezjakitearen biktima den beste herrialde asko ez dago munduan Iran bezala. 1979ko iraultzarekin Sha tronutik kendu eta klerikoek Islamiar Errepublikaren zuzendaritza hartu zutenetik, Irani buruz erakusten den irudia inmobilismoarena eta emakumeen derrigorrezko beloa dira ia bere osotasunean. Gainera, irudi hau are gehiago puztu dute itzal handiko zenbait komunikabidek, Iran terrorismo Islamiarraren alboan kokatuz. Asier Aranzabal eta Mila Gallastegiren iritziz, hala ere, *“gaur egungo Iran lurralde segurua eta zeharo abegitsua da, bidaiariari ustekabe anitz eskaintzen dizkiolarik”*. Topikoetatik alde egiten duen bidaia izango da, beraz, ikusentzunezko hau.




Garoiako zentral nuklearrari atiak ixtia tokatzen jakon honetan, eztabaidan dabiltza beste hamar urterako funtzionamenduan laga ala ez erabagixa hartzeko. Badirudi lau urterako behintzat luzatuko dabela haren bizitza; eztabaidagarrixa da asuntua, arriskuak dagoz tartian, lanpostuak be bai jokuan, energixa motaren problematika...

## Garoiña itxi ala zabalik lagako zenduke?



**JUANI NOGALES**  
66 urte  
jubilaua

Sasoi hauetan holako zentro nuklearrak egotia ez dot bape ondo ikusten, ekologiiaz hainbeste berba egitten darian. Neri, behintzat, bildurra emongo zestan halako zentro baten onduan bizitziak. Ez dakitt errentagarrixa izango dan, baiña segurtasun aldetik ez desta konfiantzarik emoten.



**FRANCISCO MARTÍNEZ**  
29 urte  
sukaldarixa

Neri begittantzen jata gaur egunian nahikua dakagula energia berriztagarriekin. Garoiako zentro nuklearra itxiko neuke, baina ez hori bakarrik, danak. Izan be, nahikua etekin atera detse halako zentrueri. Gero eta diru gehixago etaratzia da asmua, baiña plane-tia hondatzen da holan.


**JOSE LUIS LARZABAL**  
52 urte  
irakaslia

Gustauko jatan energia nuklearra bai edo ez eztabaidia zabaltzia gizartian. Biharrezkuak dirala us-te dot; hori bai, beste energia motekin uztartuz. Gaiñera, begittantzen jata gaur egunian zentro seguruak egin ahal dirala, holan, ez zestan beldurrik emango halakoren baten hurbil bizitziak.



**M<sup>a</sup> ANGELES CELIS**  
62 urte  
etxeoandria

Gai honen gaiñian ez dot asko ulertzen, baiña begittantzen jata Garoiako zentrua ixten badabe jende asko geldittuko dala bihar barik; holan, hobe zabalik lagatzia. Hori bai, oso segurua ez bada bildurra emongo zestan, baiña gaur egunian gatxa da esatia zer daguan ondo edo txarto.



  
**GALARRETA**  
oinetakoak • poltsak • osagarriak

**BIZIKLETA ZOZKETA**



**IRABAZLEA**  
Santurtziko  
**IDOIA PEREZ**  
Zorionak!

Argazkian,  
Alicia Mochales  
eta Elvira López  
denda saltzaileekin

Irizar pasealekua, 2 BERGARA Tel: 943 76 12 39  
Toribio Etxebarria, 15 EIBAR Tel: 943 20 13 43

**JOSE ANTONIO CARRERO**  
(2009ko uztailaren 1ean hil zen,  
49 urterekin)

*Gazte joan zaigu  
gure Jose Antonio maitea.  
Ezin ukatu ezin dela  
gizon ezinhobea...  
Zure sufrimendua bukatu  
eta hasi da gurea,  
beti eramango baitzaitugu  
gure bihotzetan gordea.*

**ZURE ALABEN LAGUNEN PARTEZ**

Eguzian, hillaren 9ian, Portalean presentauko dabe *Matando sueños, sembrando miedos*. Morales de Toro, 1936... izenburuko liburua, 19.30xetatik aurrera. Jose María del Palacio Alonso eta Cándido Ruiz Gonzálezek alkarrekin idatzitako liburuan Morales de Toro (Zamora) herrixan Gerra Zibillak izandako ondorixoa larrixak jaso nahi izan dittue egilliak, ahozko testimonixuak eta ikerketa historixuak uztartuta. Liburuaren aurkezpena Intxorta Kultur Elkarteko kidiak antolatu dabe.

# Morales de Toro, faxismuaren represiñua

**E**z dira gitxi Gerra Zibillaren ondorixoa latzak jasan dittuen herrixak, Euskal Herrixan bertan zein Espaiñako beste lurraldietan. Azken urtietan ahalegin berezixoa egitten dihardue alkarre askok, galtziar egon dan memorixia historixua berreskuratzeko ahalegiñetan. Alkarre horretako bat dogu Intxorta 1937 izenekua: 2005eko abenduan, ofizialki jaixotako alkartxiak hain zuzen be memorixia historixua ikertzia eta zabaltzia billatzen dau eta Debagoiena

zein debabarrenako lagunak osatzen dabe, perfil diferenteko andra-gizonak. Tartian Jesús Gutiérrez ezabarra dago eta, berak azaldu deskun moduan, *“batez be II. Errepublikatik aurrerako historixia ikertu dogu, 1934ko altxamendua, 47ko greba...”*. Ikerketa esparrua hori izanda, datorren astian Eibarraren presentauko daben liburuaren egilliekin harremanetan ipiñi eta gure herrixan presentaziñua antolatzia bata bestiaren atzetik etorri ziran.



Eskuman, Jose María del Palacio liburuaren egillia. Bere onduan, 89 urteko Petra de la Torre Gamazo. Hónek bere aitta Francisco, ahiztia eta azken honen nobixua galdu zittuan.



## Errepresiño gogorra

Gutiérrezek diñuan, *“Morales de Toro oso herri txixkia da, 2.500 bat lagunekua, eta han jaixotako asko Arrasate-Aretxabaleta ingurura jua ziran tren-bidia egittera biharrera, I. Mundu Gerraren aurretik. Eta, ondoren, Gerra Zibilla eta ondorengo errepresiñua pasauta, lagun askok hartu eben Arrasate-Aretxabaletarako bidia eta beste batzuk, barriz, Eibar-Ermuan geratu ziran. Hortaz, gaur egunian be sustraixak Zamorako herri horretan dittuen lagun asko dagoz hamen inguruan”*.

## Memorixari heltzia


Horregaittik, bereziki interesantia begittandu jakuen liburuan jasotakuak ezagutzera

emotia: *“Orokorrian zenbakiak-eta emoten dira, baiña sarritan ahaztu egitten jaku zifren atzian personak daguzela. Oso inportantia da horrek istorixak argixia ikustia, ezagutzera emotia. Izan be, fisikoki hiltzia oso gogorra da, duda barik, baiña oso gogorra da baita jendia memorixatik ezabatzia. Eta Gerra Zibilla eta osteko urtietako kontuekin hori pasatzen da, askori lotsia moduan emoten detse gauzak kontatzia, famelixa askotan ixilpian gordetzen segitzen dabe eta hori penagarrixa da, azken batian jende horrek bere ideien alde borrokatu eban, besterik ez”*.

Memorixatik ezabatzeko kontu horrek ondo ezagutzen ditte José María del Palacio



**JOSE M<sup>a</sup> DEL PALACIO, liburuaren egillia**



**“Faxistak beste herrixendako eskarmentu billa gogor jo eben”**

**- Nolatan ekin zetsazun holako liburua idaztiari?**

Azken batian famelixa barruko giruak berak bultzatu ninduan horretara. Nere aitta 1946xan urten zan kartzelatik, errepresaliatuta, erbeste-ratuta eta baldintzapeko askatasunarekin. Orduan etorri ziran ama eta bera Aretxabaletara bizi izatera eta, neu bertan jaixo arren, pentsatzen neban gurasuen herrixan pasautakuekin kontau biharreko historixa bat baeguala.

**- Modu berezixan zigortu eben Morales de Toro moduko herri txikixa. Zergaittik?**

Matxino faxistak, faxista beste izenik ez dabe merezi eta, toki batzuetan beste batzuetan bai-

ño gogorrago sartu ziran. Orduan sasoiari Morales de Toron beste herri batzuetan baiño indar haundixagua zeken Errepublikaren aldeko ideiak eta pentsakera sozialistak. Orduan, faxistak beste herri batzuetako eskarmentua izango zan adibidetzat hartu eben herrixa, horretarako premiñia ikusi eben. Horrekin batera, herriko bertako kazikiak galduta zeken nagusitasuna berreskuratzeko aukera paregabia ikusi eben horretan.

**- Beraz, herri batzuk beste batzuk baiño gehixago sufridu eben...**

Gaztela, Galizia, Errioxa, Nafarroa... gerrarako bihar zittuen gaztiak batzeko tokixak ziran, alegixak izatiaz gain. Horregaittik, toki batzuk menpian eukitzeko interes berezixa egon zan, bestiendako adibidia izateko. Azken batian, terrorea erabilitta bestiak geratzia billatzen eben.

(Aretxabaleta, 1948), Cándido Ruiz Gonzálezekin (Toro, 1970) batera liburua idatzi dabena: “Oindiok be kontu horren gaiñian berba egitteko orduan beldur haundixa daka jendiak. Goguan dakat Valladoliden matrimonixo batekin egittera nindoian alkarrizketa bat: an-

dria fusilau baten arrebria zan eta gizona, barriz, mendixan akatu eben gizon baten semia. Eurak berba egitteko gertu eguazen, baiña azkenian atzera egiñ eben, alabak ez zetzelako lagatzen horren gaiñian berba egitten. Beste askok ize-nik ez ipintzeko eskatu deste,

eskumak boteria hartzekotan euren edo euren seme-alaben kontrako represiñua egon leikiala pentsatzen dabelako”.

**Berba egitteko beldurra**

Halanda be, kontrako kasuekin be egin dau topo: “Atenziñua deittu desta zelan, represi-

ñua ikaragarrixa izanda be, gitxi batzuk ez eben sekula atzera egiñ eta beldurrari aurre eginda burrukan segidu eben. Halanda be, gitxi izan ziran, kasu gehixenetan jendiak nahixago izan dau barbarik ez egittia, hortik askok pentsatzia politikak-eta kaltiak baiño ez detsela ekarri euren bizitzari eta seme-alaberi politikan ez sartzeko aholkua behiñ eta berriz errepikatzia”.

Baiña Morales de Toron gertatutakuak ahazteko ahalegiñak ahalegiñ, argi dago oindiok be zabalik daguazela orduan sasoiari gertatutakuen zaurixak: 31 hildako, gaztien %95ak ezkerreko alderdixeri botua emon zetsan herri txikixan. Liburua ez eze, beste omenaldi bat be jasoko dau Morales de Torok: “Abuztuaren 8xan biktimeri omenaldixa egingo detsagu, baiña ez da bat ere erreza izan omenaldixa antolatzia, asko ziran gauzak daguazen moduan lagatzeko eskatzen ebenak, baiña zaurixak hor dagoz, oin 70 urte hildakuak bide-baztarretan segitzen dabe eta herrittik kanpo bizi garran bigarren belaunaldixak jua bihar izan gara bertara, horreri omenaldixa egittera”.

**EGOITZA NAGUSIA**  
**Bidebarrieta 20 - behea, eskuma**

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Helbidea**  
**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako domeetako**  
**1. solairua**

**EIBARRI**


**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza

**BERRIA: Foto-depilazio Unitatea**

## TEEN- AUEA



Kepa Osoro, Jon Minondo, Elgoibarko taldekide batekin. Behean, Eibarko biak gol bat ospatzen.



Gure herrian foballaren inguruko albisteak oso onak izan ez diren arren, gure herritar batzuentzat ez da horrela izan denboraldi honetan. Izan ere, Elgoibarko taldea 2. B mailara igotzeko zorian izan da, eta han aritu izan dira Ion Minondo, Fran Guruceta, Iosu Guinea eta Kepa Osoro eibartarrak.

### KEPA OSORO, fobalaria:

## “Talde bat izan gara”

- *Nola esango zenuke izan dela denboraldia zuentzat?*

Denboraldi itzela izan da, zaila gabe. Hasi batean gure helburua mailari eustea zen, baina taldeak eman duen erantzuna bikaina izan da momentu oro eta, azkenean, mailaz igotzeko play off-a jokatze-ko txartela lortu genuen. Sari handia izan da hori guretzat.

- *Eta maila pertsonalean?*

Foballean ari naizenetik egin dudana denboraldi onena izan dela esango nuke, bai minutu asko jokatu ditudalako, bai taldeari egindako ekarpena nabarmena izan delako. Oso pozik nago egindako lanarekin eta espero dut datorren denboraldian aurten egindako berdindu edo hobetzea. Esperantza handia daukat.

- *Burgos ahaltsuaren aurka galdu zenuten playoffean. Zein zapora geratu zitzaizuen?*

Oso ona egia esan. Bagenekien oso zaila zela Burgos bezelako talde bat kanpoan uztea, euren daukaten aurrekontu handiarengatik, jokariarengatik eta abar, baina ondo borrokatu

eta aurpegia eman genuen beti ere. Gainera, joaneko neurketa galdu bagenuen ere, itzulerakoan irabazi egin genien Mintxetan. Lastima 1-0eko emaitza nahikoa ez izatea...

- *Zein izan da gakoa hain denboraldi ona egiteko?*

Zalantzarik gabe, talde bat izan gara. Momentu txarrean taldekideen artean elkar lagundu dugu eta, bestetik, buruz oso gogorak izan gara. Harro nago aurten Elgoibarko foball taldea osatu duten jokalariez.

- *Eibartar asko ibili zarete taldean. Nolako izan da zuen eragina?*

Ez nuke jakingo esaten gure eragina zenbaterainokoa izan den taldean, baina azpimarratuko nuke oso lagun onak gara.

- *Datorren urteari begira zein aurrikuspen daukazu?*

Gure helburua ahalik eta azkarren 45 puntu lortzea da. Taldeak ez du iazko denboraldia-rekin alderaketarik egin behar eta neurketa bakoitza azkena izango balitz bezala jokatu behar du. Hor egongo da gakoa ezpairik gabe. Gero gerokoak, helburua argi izan behar dugu.



Toribio Etxebarria, 4

San Andres  
Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**


Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



## EVITiko ikasleen plenoa Felix Sopolana sarietan

Ez da Eibarko Ingeniaritza Eskolako (EUITI) ikasleek Felix Sopolana Memorialaren sarietan garaipena lortzen duten lehen aldia, baina aurtengoan eurak izan dira sarien jaun eta jabeak. Izan ere, Karrera Amaierako Proiektuen eta Ikerketa Teknikoen mailan lehen sariak eskuratu dituzte.

**F**elix Sopolana Memorialeko sariak banatu ziren ekainaren 16an Gipuzkoako Industria Ingeniari Tekniko- en eta Peritoen Elkargo Ofizialaren areto nagusian. Sari hauek banatzen diren bosgarren aldia da eta Eibarko Ingeniaritza Eskolako (EUITI) kide-



ek, beste urte batez, protagonismo handia izan zuten. Saria nagusi biak lortu zituzten Eibarraren ikasten duten ikasleek: Karrera Amaierako Proiektua eta Ikerketa Teknikoa.

Arrasate, Donostia eta Eibarko Ingeniaritza Eskola Tekniko Industrialeko 14 lan aurkeztu ziren Felix Sopolana Memoriale- ra. Lan horien artean bik lortuko zituzten sari nagusiak, eta Jose Luis Infante, Antonio Gil, Antxon Vega de Seoane, Jorge Arevalo eta Jose Ramon Lasartek osaturiko epaimahaiak sari horiek eibarrera joan zintezela erabaki zuen.

Aipatu behar da, bestalde, sari honek Felix Sopolana Esnaolaren (1911-1995) irudia omentzen duela. Peritoen Eskolako bultzatzailea izan zen, eta Gipuzkoako Industria Ingeniari Teknikoen eta Peritoen Elkargo Ofizialaren sorrera eta garapenean aktiboki egin zuen lan. Gainera, egindako guzti horrengatik Elkargoak Zilarrezko Domina eman zion.

### EUITikoak garaile

Lehen sari nagusi biak EUI-



Irabazleak euren sariekin ekitaldia egin zen eguneko irudian.

Tiko ikasleek irabazi badute ere, aipatu behar da sei lan onenen artean bost direla EUITikoak. Gainera, adierazgarria da lan sarituek energia berriztagarrien arloaren gainean garatu direla, hain zuzen ere, hidrogenoko pilen gainean. Izan ere, Eibarko eskolak urteak daramatza ildo hori lantzen.

Francisco Javier Asensio de Miguel eta Javier Garcia Villabosek garatutako 'Pem fuel cell system implemented in electronic motors and its quality of supply' (Erregai-pilak motor elektrikoetara aplikatzea eta horniduren kalitatea) ize-

neko proiektuak irabazi zuen Karrera Amaierako Proiektuen mailan lehen saria.

Ikerketa Teknikoen mailan, bestetik, Maria Ballester Alonsoen 'Estudio de las energías renovables aplicadas a una vivienda autosuficiente, adaptada a un discapacitado, y utilizando la tecnología del hidrógeno' (Energia berriztagarriak aplikatzeari buruzko ikerketa, kanpo-hornidularik gabeko eta elbarri batentzat egokitutako etxebizitza batean, eta hidrogenoaren teknologia erabilita) izeneko proiektuak lortu zuen garaipena.

Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAIRA BERBA** Irratsaloon orantzungo dizu, eguardiko 12.30etan.  
Zure keza, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: [eibar@herri-irratia.com](mailto:eibar@herri-irratia.com)  
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)  
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz  
943 82 08 44 zenbakira.

**90.7 Fm**

## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B  
t. 943 208 330

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57



**HORTZ KLINIKA**

**ARAT Hortz Klinika**

Hortz-osasuneko  
profesional talata  
zure zerbitzura



Hortz-osasuneko  
profesional talata  
zure zerbitzura

PREBIOZIBARRI, 12. Tel. 943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten



**Bista Eder**  
DENTISTAK

Bista Eder, 19 - behea  
Tel. 943 70 00 82  
943 20 84 75

- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90



**IRAZABAL**  
clinica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

# OSASUN

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia  
ume eta  
helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
eta **Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

## Estetika klinika

**abontza**  
clinica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behea - Telf.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

## Dietetika

**Nutrieibar**  
Aurora Cid

Nutrizio eta Dietetika Zerbitzua

Larregizko pisua eta obesitatea  
Umeen obesitatea  
Nutrizio-berreziketa  
Dieta pertsonalizatuak

Konsulta astearte eta ostiralean  
Ordua hartzeko: 647 823 971  
San Agustín, 2-4  
Balegoak 1 Lokale

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20  
Telf: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA**  
ZENTRUA

**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zbkia.

San Agustín, 2-4 - M lokale  
Tel. 622 14 58 58

**Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA**

- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Juan Gisasola, 14  
Telefonoa: 943 12 70 78



# GIDA

## Kirol medikuntza

**KIROL MEDIKUNTZA**  
  
**Indartu**  
 ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTITAKO MUTUA ETA ASBEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

## Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
 124 kolegiatu zenbakia



**943 12 14 93**  
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

## Psikologoak

**AROR**  
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
 (Ume eta helduendako)

— Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta —

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. esk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
 Artakalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

## Okulistak

**OKULISTAK**  
 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

**OKULISTAK**  
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta  
 Tfnoa: 943 20 19 82

BIDEBARRIETA 4 8  
 EIBAR  
 943 203050

ERDIKO KALE 5 4  
 ARRASATE  
 943 799746

**PODOLOGOA**  
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO  
**PSIKOLOGIA**  
**KABINETEA**

ARRATE GARITONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

HELBIDE BERRIA: 943 20 22 66  
 Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 646 233 182

**Clínica Oftalmológica**  
**RECALDE**  
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barría, 2 - 2º  
 Tfnoa: 943 201 844  
 www.clinicarecalde.com

**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta  
 Psikoterapia zentroa

**Ψ**

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

**PODOLOGO**  
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Hemen zure tokia izan nahi baduzu  
 deitu 943-206776 telefonora



## Aitzakia tekniko berriak; arrazoiak, betikoak

**E**z da lehenengo aldia Nafarroako Gobernuak Euskalerrria Irratiaren kontrako jarrera agertzen duena, baina hala ere, harriduraz hartu ditugu aste honetan bertan ezagutu ditugun berriak. Harriduraz eta haserre. Iruñerriko hedabideen artean euskaldunon erreferentzia den irratiarekin Nafarroako Gobernuak izan duen injustizia historikoari jarraipena ematen ari zaio neurri honen bitartez. Oraingo honetan, aitzakia usain nabarmena duten erabaki tekniko eztabaidagarriak baliatzen ari dira Euskalerrria Irratia bera eta, bide batez, Euskadi Irratia, Gaztea eta ETB mapatik ezabatzeko, Iruñerriko euskaldunak aukerarik gabe utziz. Ez da ulergarria eta, batez ere, ez da inolaz ere onargarria.

Harrituta gaudela diogu azken asteotan Euskarabideako ordezkariekin izan ditugun harremanetan jaso dugun mezua beste bat izan delako, euskarazko hedabideekin elkarlanerako borondatea aurkeztu zaigulako. Horregatik harritu eta haserretu gaitu erabakiak.

Jakina da azken bi urteak oso gorabeheratsuak izan direla euskarazko hedabideentzat eta elkarreentzat Nafarroan (baita euskalgintzako beste erakundeentzat ere). Azken bi urteetan Nafar Gobernuaren aurrekontuetan hedabideek eta euskara elkarrekin jasandako kolpe latzak izan dira (gogoratu beharra dago hedabideentzako diru-laguntzen aurrekontuak %97ko murrizketa izan duela aurten, eta euskarazko kultur jarduerak sustatzeko zuzendutakoak %80koa, eta

egoera horrek bere horretan jarraitzen duela oraindik); baina azken hilabeteetan bagenituen esperantzari atea zabalitzen zioten zenbait zantzu (esperantzara kondenatuak baikaude, Garik kantatzen duen moduan). Nafarroako parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Gobernu hedabideekin hitzarmena adostera gonbidatu zuen 2008ko abenduaren 17an, eta Euskararen Nafar Kontseiluak ere egoerari aterabidea emateko eskaria egin du aurtengo ekainaren 3an egindako batzarrean.

Ondoren, euskarazko hedabideek azken hilabeteetan behin eta berriz eskatu duten modura, Euskarabidea eta hedabideon ordezkarien artean hasi gara harremanetan. Maiatzaren 29an izan da lehen bilera (ekainean izan du jarraipena harremanak) eta bertan Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko Komunikabideen Zerbitzuko zuzendariak ere parte hartu zuen. Euskarabideak luzatutako lehen hitzarmen proposamenetik agertu da Nafarroarako euskarazko irratia eta telebista bermatzeko borondatea eta, horregatik, harrizkoa da orain hartutako erabakia. Nafarroako Gobernuko arduradunek tokiko hedabideen funtzio sozialaz eta hiritarrek dituzten hurbiltasunaz hitz egiten duten bitartean (Nafarroako tokiko prentsaren lehen jardunaldian Alberto Catalanek adierazi moduan) Iruñerrian dagoen euskarazko irratia bakarra itxi nahiak ez dauka inongo justifikaziorik.



Euskalerrria Irratia da orain, lehenago Ttipi-Ttapa telebistaren emisio etena izan zen. Arrazoiak ezberdinak, baina funtsean bi arazo berdin dira oinarriarri: Nafarroako Gobernuaren euskararekiko eta euskaldunokiko jarrera eta irratitelebistek emititzeko behar dituzten lizentziak ez emateko urtetan jarritako trabak. Jarrera horiek aldatzen ez diren artean erabaki tekniko modura edo nahi duten bezala aurkeztuko dute, baina aitzakia huts izango dira. Testuinguru horretan, Euskarabideari galdetu nahi diogu ea non geratzen den Gobernuaren izenean agertutako asmoa, egungo euskarazko hedabideen eginkizun eta bizirauteko beharrezko diren laguntza eta babesa ziurtatzearen inguruan.

Euskalerrria Irratiko lagunei besarkada bat bidaltzeko aprobetxatu nahi ditugu azken lerro hauek, nahi dutenerako ondoan izango gaituztela esateko.

**Karmen Irizar Seguro**  
TOPAGUNEAREN Zuzendaritza  
Batzordearen izenean

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

**KONFEKZIOAK**

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax: 943 202564



Arrateko maldetan motor hotsak izango dira nagusi asteburuan. 4.990 kilometrotan zehar Espainiako Mendiko Auto Txapelketako autorik azkarrenek hartuko dute parte Arrateko Igoeraren XXXVIII. edizioan, antolatzaileen berbetan, "esentziaren esentzia". Abiadura eta emozioa atsegin dutenek Arraten dute zita asteburuan.

## Arratera ziztu bizian

**B**este behin, Arrateko bi-dean arnasten den lasaitasunak etena izango du asteburu batez. Behi eta ardien soinu, edo isiltasun osoek, autoen motorren hotsei utziko die lekua bihar 13.00etik aurrera domekara arte. Izan ere, Arrateko Auto Igoeraren XXXVIII. edizioa egingo da, Estatuko Mendiko Auto Txapelketako gidari onenak batzen dituen lasterketa.

Iaz bezala, zati independiente bitan banatuko da asteburua. Batetik, zapatuan 'A' fasea jokatu da Hyundai egunean. Eta bestetik, domekan 'B' fasea izango da jokoan Chevrolet egunean.

Zapatuko igoeran 13.00etik aurrera itxiko da errepidea, nahiz eta zirkulazioa murriztuta egon 09.00etatik. 14.00etan entrenamendu libreak egingo dira eta 15.30etan ofizialak. Azkenean, 17.00etan hasiko da manga bakarrek lasterketa. Domekakoan, berriz, 07.45-etan itxiko da errepidea, 08.45-

etan egingo dira entrenamendu libreak eta 10.15etan ofizialak. Lasterketa 12.00etan hasiko da.

### Estatuko onenak

Espainiako Mendiko Auto Txapelketan azken urteotan aurreneko postuetan ibili diren gidariak izango dira Arrateko errepideetan. Guztien buruan



Gidaririk onenak ikusiko ditugu Arrateko maldetan, tartean hainbat eibartar.

ditu asturiarrak, Angel eta Goyo Castro, kasu. Euskaldunen artean Aitor Ramirez, Aitor Arakistain eta Aitor Barrueta eibar-

tzaileei gehien kezkatzen dien kontuetariko bat. Bai gidariena, bai publikoarena. Horrela, nahiz eta euren aldetik ahale-



Escuderia Eibarrek 17 gidari aurkeztuko ditu; horietatik lau eibartarrak dira. / EKHI BELAR

Jose Antonio Lopez Fombona asturiarra agertzen da, 2007 eta 2008ko txapelduna. Hala ere, lehiakide gogorak izango

tarra dira aurreko postuetan ibiltzeko dohainak dituzten gidariak. Aipatu, bestetik, Escuderia Eibarrek inoiz baino gidari gehiago aurkeztzen dituela Arrateko Auto Igoerara, 17 zehazki, horietatik lau eibartarrak direlarik.

### Arriskuak ekidin

Segurtasuna da lasteketaren antola-

gin handienak egin, publikoari hainbat gauza kontuan hartzeko eskatzen die: segurtasun aholkuak beti jarraitzea, lasterketa ikustera oso garaiz joatea, Bizkaia aldetik hurbiltzen direnak Markinatik Ixuara igotzea, ingurumena errespetatzea, toki seguruetan kokatzea, behin segurtasun autoa pasatzean bi-dea ez zeharkatzea, istripua egonez gero traba ez egitea eta zentzutasuna erabiltzea.



Mendiko autoen zaletuek gertutik ikusi ahal izango dituzte bihar eta etzi.

UZTAILAK 4, ZAPATUA	UZTAILAK 5, DOMEKA
13.00 - Errepide itxiera	07.45 - Errepide itxiera
14.00 - Entrenamendu libreak	08.45 - Entrenamendu libreak
15.30 - Entrenamendu ofizialak	10.15 - Entrenamendu ofizialak
17.00 - Lasterketa: 'A' fasea	12.00 - Lasterketa: 'B' fasea



## Herriko zazpi jokalaria Eibar Hiria squash-eko VI. edizioan

**EUSKAL HERRIKO ORDEZKARITZA ZABALA IZAN DU SANJUANETAN JOKATUTAKO** squash-eko torneoa gure herrian, tartean nazional mailako ranking-ean hamar onenen artean dagoen Bilbon bizi den jokalaria kantabriar bat. Guztira 37 parte-hartzaile izan zituen txapelketak, euren artean euskal ranking-eko hamar onenen arteko zortzi eta gure herriko zazpikote bat. Iruñeako Amaya taldeko Javi Villanueva izan zen irabazlea eta Alberto Ferrero eibartarrak brontzeko domina eskuratu zuen; bestalde, Eibarko Klub Deportiboko beste bik ere maila bikainean jardun zuten (Sergio Salgado debatarra 5. postuan sailkatu zen eta Jon Losada kontsultaziozko azpitxapeladuna izan zen). Squash-ak beste jauzi kualitatibo bat eman du oraingoan, arrakasta osoz.

## Usobiaga eskalatzailea munduko txapelketaren bila

**BADA TXAPELKETA BAT PATXI USOBIAGAK ORAINDIK ESKURATU EZIN** izan duena: hori munduko txapelketa da. Munduko Kopa, ordea,



bitan irabazi du Eibarko eskalatzaileak (2006 eta 2007ko edizioetan) eta iaz Europako txapelketa ere bereganatu zuen. Munduko txapelketan azpitxapeladuna izan da jokaturako azken hiruretan eta ondo merezita du sari nagusia jasotzea; baina, horretarako, Txinako Xining-en gaur egun kirol eskaladako nazioarteko federazioko ranking-ean bere aurretik dauden Julián kataluniarra, Mrázek txekiarra eta Verhoeven herbeheretarra gainditu beharko ditu. Atzo hasi zen finalerako sailkapen fasea eta bihar eta etzi jokatu dira finalak; hor izango da Eibarko eskalatzailea, gauzak normal antzean badoaz behintzat. Irati Anda gasteiztarra ere berarekin joan da Txinara, emakumezkoen mailako txapelketan parte hartzeko.

## 225 parte-hartzaile BTT martxa arrakastatsuan

**ASTEBURUAN EGIN ZEN EUSKADIKO BTT ZENTROEN I. CHALLENGEAREN** barruko I. Debabarrena BTT martxa eta, Debegesak eta Elgoibarko Kirol Patronatuak antolatutako proban, bailarako, probintziako, EAEko eta estatu osoko parte-hartzaileak izan ziren. Proposatutako ibilbide bietan (25 kilometrokoa bata eta 45ekoa bes-

tea) jardun zuten guztiek amaitu zuten proba eta tartean izan zen Iñaki Lejarreta txapeladun handia. Amaieran sei sari banatu ziren: urrutienetik etorritakoak, gazteenak, zaharrenak, nesken arlokoak, partaide gehien ekarri zuen taldeak (Eibarko Txirrindulari Taldea izan zen horko irabazlea)... etxe askok emandako sari eta trofeoak jaso zituzten.



Arrakastaz ekin dio bideari Debabarrena BTT martxak.

## 17 taldek dihardute Patronatoko foball-7ko txapelketan



**LAU TALDEGAN BANATUTAKO HAMA-ZAZPI TALDEK** dihardute parte hartzen aurtengo edizioko foball-7ko txapelketan. Ekainean hasitako torneoak 5. jardunaldia jokatu zuen asteburuan eta Kopako txapelketari ekingo dio oraingokoan. Kopako fasea hilaren 17an amaituko da, finala eta 3. eta 4. posturako partiduekin.



Aurreko astean jokaturako San Juan torneoko irudia. / LEIRE ITURBE

## Waterpoloan egiteko aukera neskendako ere

**URBAT-URKOTRONIK-EKO WATER-POLO TALDEAK, KADETE ETA JUBENIL MAILAN** jarduteko sortu behar duen eskolarako, izen-emate epea zabaldu du. Interesatuek [waterpolo@urbat.es](mailto:waterpolo@urbat.es) edo [urbatwp@gmail.com](mailto:urbatwp@gmail.com) helbideetara idatzi dezakete, 688 610 627 telefono zenbakira deitu edo, bestela, Ipuria kiroldegitik pasatu. Kadete (13-15 urte) eta jubenil (16-17) mailatako taldeekin batera, nesken taldea ere sortzeko asmoa dute Urvat-

ekoek; horregatik, dei berezia egiten zaie talde jokoa gustoko duten neskei.

San Juan torneoan, bestalde, Eibarko ordezkariak amore eman behar izan zuten jokaturako partidu bietan. Iruña Euskal Herriko 1. mailara igotako taldeak 15-3 irabazi zion Urvat-i eta 18-6 Aviléseko asturiarrei. Neurketa parekatuenean, Urvat-ek 9-10 galdu zuen Avilésekin, bost segundoren faltan erabaki zen norgehiagokan.

## San Viatorrek irabazi zuen Eibarko Hiria 25. xake txapelketa


**GASTEIZKO SAN VIATOR IZAN ZEN ONENA KRUZETA SARIAREN 25. EDIZIOAN.**

Talde arabarrak 57 puntu lortu zituen guztira, Grosek baino sei gehiago eta Errenteriako Fomento Culturelek baino zortzi gehiago. Eibarko Klub Deportiboko hiru talde izan ziren 18 parte-hartzaileen artean eta A taldea 5. postuan sailkatu zen, B taldea 10.ean eta C taldea 17.ean. Talde irabazlea David Astasiok, Alvaro Pérezek, Igor Villaltak eta Diego Gutiérrezrek osatu zuten eta mahai bakoitzeko jokalaririk onenek ere jaso zituzten euren sariak eta izan ziren, gure herriko jokalaririk izanda, beste talde batzuekin jokatu zutenak ere: Jose Ricar-



do Gómezek Gasteizko Egidazu taldearekin jardun zuen eta Iker Narbaizak Ermukoarekin.

Sari banaketan, De los Toyos alkatearekin eta Margari Olañeta Jose Mari Kruzetairen alar-gunarekin batera, Patxi Mutiloa Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendari berria izan zen.




## Erritmikako udako ikastaroak

**UDAKO EGUN HAUETAN GIMNASTIKA ERRITMIKOA PROBATZEKO GOGOA** duen edonork parte hartu dezake Ipurua taldeak antolatutako ikastaroan. Asteleheneetik ostegunera ematen dira, arratsaldeko

15.00etatik 17.00ak arte, eta jendeak astebeterako, birako edo hirurako eman dezake izena bertan parte hartzeko. Prezioak honakoak dira: 15 euro astebete, 25 euro bi aste eta 30 euro hiru astetarako izena emanaz gero.

## Arrillaga-Pérez nagusi pelota torneoan

**ERREMATATE ONENAK ZUBIZARRETA EGIN BAZITUEN ERE,** segurtasun handiagoa erakutsi zuen Arrillagak eta Pérezek osatutako bikoteak eta, torneooko finalean, 22-19 irabazi zion Zubizarretak eta Portuk osatutakoari. Txapelketa bereko lau eta erdikoaren finalean, Bengoetxea nagusitu zen beste behin, Etxanizi 22-14 irabaziz. Ikusle aldetik ere, erantzun ona jaso zuen oraingoan torneoak eta giro polita egon zen egun horretako partidua jarraitzen. Astelena frontoiak egun berean, baina arratsaldean, Deba Arroko torneooko finalak ere jaso zituen eta hor Elgoibarrek 22-21 irabazi zion Elgetari seniorretan, Arrasatek 22-14 Bergarari jubenetan eta azken honek 22-9 Arrasateri kadeteetan.



## Herriko 29 txirrindularik amaitu zuten Quebrantahuesos ospetsua

**INOIZ IZAN DEN QUEBRANTAHUESOS JENDETSUENEAN,** gure herriko 29 zaletuk amaitu zuten proba (guztira, 37 ziren izena emandakoak). Zortzi mila lagunetik gora eman zuten izena proban parte hartzeko eta, horietatik, 7.220k amaitu zuten azkenean. Hona hemen eibartarren sailkapena, lortutako postu eta denborarekin:



## Deba bailarako golf txapelketa Eibarrera

**ARRASATEKO LARRABEAN JOKATUTAKO SANJUANETAKO** Deba bailarako golf txapelketan, 120 bat golfista batu ziren indarrak neurtzeko asmoz. Herri arteko txapelketan, Eibarko jokalaririk ibili ziren ondoen eta bakar-kako sariak honakoak izan ziren: emakumezkoen kategorian, Lourdes Altzibar izan zen onena, Blanca Ansotegi eta Mari Karmen Ezenaroren aurretik; gizonezkoen lehen mailako kategorian, Inazio Garate izan zen onena, Xabier Castañón bigarrena eta Juan Etxeberria 3.a.

Gaizka Lazarobaster	392	6h29'26"	Tomas Arizaga	3.279	7h45'21"
Daniel Palacín	926	6h47'33"	Lucio Okamika	3.575	7h52'45"
Jon Etxeberria	941	6h47'59"	Iñaki Azpitarte	3.793	7h58'23"
Carlos Javier Pérez	1.098	6h53'07"	Aitor Zubizarreta	3.805	7h58'44"
Josu Pérez	1.576	7h05'21"	Emilio Pozo	3.941	8h02'03"
Fernando Pérez	1.907	7h12'36"	Jose Miguel Sanz	3.948	8h02'09"
Mikel Caño	2.021	7h15'03"	Alfonso Fernández	4.168	8h07'47"
Javier Telleria	2.036	7h15'31"	Alberto Conde	4.205	8h08'42"
Ion Moreno	2.151	7h18'10"	Bittor Zengotitabengoa	5.045	8h34'25"
Pedro Garitagoitia	2.492	7h26'06"	Mikel Egia	6.302	9h28'15"
Carmelo Curiel	2.620	7h29'17"	Jon Andonegi	6.365	9h33'21"
Jesus Laskurain	2.683	7h30'53"	Pedro Murillo	6.367	9h33'21"
Jose Luis Blázquez	2.737	7h32'27"	Inazio Erkiaga	6.507	9h42'09"
Jose Alberto Vicuña	2.844	7h35'04"	Iban Aldalur	6.606	9h50'02"
Mauri Martín	3.144	7h42'26"			

Buenos Aireseko aireportuan harrapatu dugu Corina Fiorillo 'Desdichado deleite del destino' antzezlaneko zuzendaria. Domekan Coliseoan izango dugu ikusgai obra argentinar hau (sarrerak 6 eurotan). Eta argentinarra esatean, argentinarraren peto-petoa da esan nahi dena; mate, foball, kumbia eta guzti.



**CORINA FIORILLO, antzerki zuzendaria:**

## "Umorea zapalketaren inguruan gogoeta egiteko darabilgu"

**- Nola heltzen da zuek bezalako konpainia argentinarra Eibarrera?**

Iaz gure antzezlanaren Buenos Airesen zegoen ikusgai eta ACE sarietarako (gure herrialdeko saririk garrantzitsuenak) bost nominazio jaso genituen. Orduan, Ariela Mancke ekizileak gure antzezlanaren ikusi eta, Donostiako Udaleko kide batzuk Buenos Airesera joatean, eurekin kontaktuan ipini ginduten. Horrela helduko gara Eibar, Donostia eta Santanderrera.

**- Lehen aldiz zatozte?**

Bai. Oraindik Argentinan gaude, hegazkina hartzeko zorian. Gauza zoragarriak kontatu dizkigute Gipuzkoaren gainean eta itxaropentsu gaude.

**- Antzezlan argentinarraren petoa da zuena?**

Bai, baina unibertsala ere bada, mundu osoan erreakzioak sortzen dituzten zapalketak unibertsalak baitira. Hala ere, gure ohiturez berba egiten duen osagai nazional handia dauka: matea, foballa, musika herrikoa, poztasun eta negargureak elkarbanatzea bizilagunaren lorategian...

**- Beraz, Argentinari buruzko topikoak daude presente antzezlanean?**

Indar handiarekin. Argentinarrak asko maite ditugun gau-

zak dira; atzerritarrei zuzenduriko zati bat ere badauka autorearen eskutik. Hori guztia umore askorekin.

**- Zer aurkituko du antzezlanaren ikustera doan publikoak?**

Gure ohiturak erakusten saiatzen den antzezlanaren. Umore, musika eta gogoeta askoko ikuskizuna irrifarrearen bidetik. Izaeraz eta gobernu diktatorialen gainean gogoeta egiteko antzezlan onak da hau. Umore asko eta, baita, musika klasiko eta kunbiaren arteko nahasketa arraro bat erabiliz.

**- Hiru pertsonaia daude antzezlanean. Nolakoak dira?**

Don Pancho aita da: autoritarioa, oinperatzailea, bere gauzengatik sufrizten duena, baina beste kontuak alde batera uzten dituena. Gaitzetan duen emaztea eta oinperatzen duen alaba dauka. Zulema da bere alaba, eta askatasuna lortzen duen izaera oinperatua dauka. Azkenik, Saltailea argentinarraren tipikoa da, umore askorekin istorioan sartzen dena.

**- Zuzendari bezala, zer saiatu zara islatzen?**

Zintzoki, umorearen bitartez agintekeria eta zapalketaren gainean gogoeta egitea. Bigarren mailan, gure kulturaren zatitxo bat islatzen.



## Punk-rocka, Lambrettak eta Citroen 2CVak

**LAMBRETTA ERAIKINA BOTA BERRI BADUTE ERE, MOTOR HAUEK** Eibarren utzi duten hondarra sendoa da. Horren erakusgai da herrian egiten den Lambretta Kontzentrazioa. Aurten IV. edizioa biziko du zita honek uztailaren 10,11 eta 12an, eta antolatzaileen berbetan, "Salamanca, Madril, Asturias, Katalunia eta beste lurralde batzuetako jendea etortzea espero dugu".

Aurtengo edizioan, bestetik, Citroen 2CV autoei omenaldia egingo zaie. Beraz, 100 bat Lambrettaz gain, 20 bat Citroen 2CV ere hurbiltzea espero dute antolatzaileek.

Gitartauari dagokionez, uztailaren 10ean Ramones festa egingo da 22.30etatik aurrera, baina tartean Siniestro Total talde mitikoak kontzertua eskainiko du San Kristobaleko plazan. Ramones festarako pantaila

erraldoia ipiniko da New Yorkeko taldearen kontzertuak eskaintzeko. Zapatuan, bestetik, 09.00etatik 12.00etara Lambretta eta Citroen 2Cven erakusketak egingo dira Untzagan; 12.30etan parte-hartzaileen kalejira; 13.00etan San Kristobalgo VI. Igoera, erakusketak San Kristobalgo plazan, ongi-etorria eta luntxa, sari banaketa eta bazkaria; 17.00etan Lambretten trebetasun saioak egingo dira Untzagan; 18.30etan ateraldia egingo da Mutrikuraino; 21.30etan zinema-afaria Tupi-Azpi tabernan; 22.30etan ABBA festa San Kristobaleko plazan; eta 00.00etan Rumba festa leku berean. Domekan, berriz, 10.00etan ateraldia egingo da eskualdean zehar, 12.00etan parte-hartzaileek kalejira egingo dute Eibarren eta 14.00etan agur-ekitaldiari iritsiko zaio txanda.



## San Juan sorben bedeinkapena

**OHITURARI ONDO EUTSI DIOTE** irudian ikusten dituzuenak eta Azitaingo parrokiaren, San Juan egunean sorbak (lora-sortak) bedeinkatu zituzten, Felix Bergara parrokiako abadearekin.



## Antzerki irakurria

### ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ESKUTIK, ANTZERKI IRAKURRIA ESKAINIKO DUTE

Eduardo Falces eta Maite Lorenzo aktoreek uztailearen 10ean, 22.30etatik aurrera San Andres elizaren klaustroan. Aktoreei laguntzen Yasmin Soud (piano elektrikoa) eta Naome Soud (bibolina) musikariak eta Alberto Toledano teknikaria izango dira. Saioaren izenburua 'Una noche de verano con Rosalía de Castro y José de Espronceda' da eta poeta bien hainbat testu interpretatuko dituzte: Cinco poemas cortos, Jarifa en una orgía, A la luna, El reo de la muerte, Adiós ríos adiós fontes, El mendigo, Volved, La desesperación, Mi tierra eta Canción del pirata.



## Cielito bandaren musika kalera

**URTERO EGIN OHI DUTENARI JARRAITUZ, CIELITO MUSIKA BANDA KOEK** gaueko kontzertua eskainiko dute, udako gauak girotzeko as-



moarekin. Gaur gauean emango dute gaueko lehenengo kontzertua, 23.00etatik aurrera Toribio Etxebarria kalean. Jorge Molinak zuzentzen duen taldeak honako piezak joko ditu: Ragón Falez (E. Cebrián), El dúo de la africana (M.F. Caballero), Nuevo cinema Paradiso (E. Morricone), Monthy Python's flying circus (C. Sánchez-Barbaren konponketekin), La Gazza Ladra (G. Rossini) eta Music from the incredibles (M. Giacchino).

Uztailerako aurreikusitako emanaldiei dagokienez, Amañako jaien barruan auzoko kaleetan kalejira egingo dute uztailearen 12an, 12.00etatik aurrera.

## San Kristobal eta Amañako jaiak

### GAUR EGUERDIAN, BATA BESTEAREN ATZETIK AURKEZTU DITUZTE

San Kristobal eta Amaña auzoetako jaiak. Asteburu nagusia hurrengo izango bada ere, aurretik hainbat ekitaldi burutuko dira: gaur arratsaldean, 19.00etatik aurrera futbito partiduak jokatuko dira Amañako jaien programarekin hasteko eta gauean, berriz, Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin bertso-afaria egingo da Caserio tabernan. Eta domekan, 11.00etatik aurrera auzoan hildakoen aldeko meza ospatuko da, Goruntz abesbatzarekin eta 14.00etan jubilatuekako bazkaria egingo da Ixua jatetxean. Eta San Kristobaleko jaien barruan, bihar 16.00etan tute txapelketa jokatuko da eta hilaren 9an, berriz, toka-txapelketa.



Lizaso Amañako bertso-afarian izango da gaur.

## laburrak

### AINARA ARGOITIA BIGARREN MENDARON

Ainara Argoitia eibartarrak Mendaroko I. Argazkilaritza Rallyaren 2. postua eskuratu zuen joan den astean. Sariarekin bat, 100 euro eskuratu zituen eibartarrak. Rallyan, bestetik, Josu Juaristi elgoibartarrak lortu zuen garaipena eta 170 euro.

### DENDARIEN SARIA MENDARORA

Eibarko Merkataritza Gune Irekiak erosketa txeke baten saria eman zion astelehenean Mendaroko Araceli Merino Eizagirreri. Zezenbide kaleko Josi eta Josi dendan eman zitzaion saria Araceliri. Honek maiatzean bota zuen bere txartela eta, zozketa baten ondoren, bera suertatu da irabazlea.

### LA SALLEKO 69-KO KINTAKOAK

La Salleko 1969. urteko kintakoez bazkaria egingo dute Azitain Erretegian uztailearen 11n. Joan nahi duenak 50 euro ordaindu beharko ditu 0030 3434 76 0000410271 (Banesto) kontuan bere izen eta abizenak ipiniz. Informazio gehiagorako [www.lasalleibar69.blogspot.com](http://www.lasalleibar69.blogspot.com) helbidera jo.

**Garitono**  
1957an sortua  
**GOZOTEGIA**

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxebarria, 6  
Tel. 943 20 24 51

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40  
[uthemek@uthemek.com](mailto:uthemek@uthemek.com)

**UTHEMEK**  
UTILS Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.

SPK- Zeramika, silizioa  
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak  
ROY - Diamante eta boraxezko hariak

Oier  
Araolaza

## Akondiako trintxerak

Orain aste batzuk Kalamua eta Akondia inguruetan gerra zibileko aztarnak ezagutzeko aukera izan dut. <ebartarrak> posta zerrendan antolatuta zen txangoa. Oier Gorosabel izan genuen gidari, eta honek, besteak beste, Jon Etxezarraga edo Jesus Gutierrezek egindako lanetan oinarrituta eman zizkigun argibideak. Bidaia harrigarria izan da. Hamaika aldiz zapaldutako lur berean ibili gara, baina, betaurreko berriekin denboran bidaiatzea modukoa izan da. Gerrako frontearen antolaketa buruzko azalpenak eman zizkigun Gorosabelek; bando baten eta bestearen posizioak argitu eta lubaki, babestoki eta ametralladoren kokaleku batzuk identifikatu genituen lurrian. Horrekin batera lur haietan izandako zenbait bizipen eta hilketen kontakizunak 72 urte atzera joaten lagundu gintuen. Sentsazio bereziak izan dira. Gerra, bere gordintasunean, oso hurbil sentitu dut. Akondia gainean geundela, bando baten lubakitik kontrako bandoaren posizioak zein hurbil zeuden ikusteak hotzikarak eragiten ditu. Ba omen dago Kalamua inguruetan gerraren inguruko parke tematiko bat egiteko asmoa. Baina iruditzen zait ez dagoela panelak jartzeko zain egon beharrik. "Parkea" egon badago, eder askoa gainera. Eta tematikoa izateko gaia ere badauka, gordina eta mamitsua. Adituen eskutik bisita gidatu batzuk antolatzeko ez da askoz gehiago behar.


**JOAN DEN ASTEAN EMAN ZITZAIEN HASIERA** UEUK Markeskua jauregian antolatu dituen Udako Ikastaroei. XXXVII. edizioa da aurtengoa eta Xabier Artaetxeberria telekomunikazio ingeniariak eman zuen sarrera hitzaldia ekainaren 29an.

Uztailaren 17ra arte ikastaro eta ekintza ezberdinak antolatu dira Markeskuan 'burua janzteko' asmoz. Hala ere, gaurtik hilaren 13ra atsedena egongo da, eta data hortatik 17ra berriro ekingo zaie ikastaroei.

Orain arte bederatzi ikastaro garatu dira Markeskuan aurtengo edizioan. Hilaren 29an 'Yoga eta desarma. Ahimsa: yogaren ekarpena gatazken aurrean...', 'Heziketa emozionala: berdinen arteko harremanak hobetuz', 'Datu espazialak: gvSIG GISa eta Mapserver mapa-zerbitzaria' eta 'Sormena Espazio Irekian: Sormen teknikak Open Space Technologyren bidez' izeneko ikastaroak egin ziren. Azkenen honen gidaritzapean Eleder Aurtenetxe egon da. Bere berbetan, "sormenaren oinarrizko baldintza askatasuna da".

### Kazetaritza solasgai

Martitzenean, 'Belaunaldi arteko programak' izeneko ikastaroa hasteaz gain, Julian Beloki (EITBko irratien zuzendari ohia), Iñaki Uria (Hamaika Telebistako Zuzendari Nagusia) eta Txema Ramirez de la Piscina (EHUko irakaslea) 'Kazeta-



Aitziber Elgezabal eta Mikel Aiestaran.

ritzaren etorkizuna: erronka berriak' izenburupenean solasean aritu ziren. Etorkizuna multimediant dagoela uste dute hirurek. Pentsaren etorkizuna, berriz, ilun ikusten du De la Piscinak. "Pentsak astindu ederra jaso du".

Eguaztenean, bestetik, beste hiru ikastaro hasi ziren: 'Ekonomia eta rock-a: nazioarteko harremanak eta mundu ekonomia eragina rock mugimenduen garapenean', 'Teknologia berriak (web 2.0 tresnak) gaur egungo hezkuntzan: tailer praktikoa' eta 'Bullying homofob-

bikoa: nola ekidin sexu aniztasunarekiko diskriminazioa gazteengan?'. Gaur amaituko dira hauek, baina ikastaro berriek uztailaren 13an emango die jarraipena Markeskuako ekintzei.

## EUSKARAREN

### IRAKASLEEK AZTERKETAK GAINDITU BARIK JARRAITZEN DUTE.

Ikasurte honetan ere, euskara ikasteko lrala programan parte hartu duten hamar irakasleetatik ia zortzik ez ditu gainditu azterketa horiek: PL2 profila lortzeko frogetara aurkeztutako 456 irakasleetatik, 308k (%67) ez zuen gainditu azterketa eta, PL1 lortzeko frogan, %66koa izan zen atzean geratu zen ikaslearen kopurua. Deialdi libreko datuak kaskarragoak dira oraindik, horko irakasleen %85ak ez baitu titulazioa eskuratu. Aurkeztutako datuak onegiak ez badira ere, eskandaluzkoagoak dira orokorragoei erreparatzen badiegu, hau da, izena emanda egonda ere probetara aurkeztu ere egiten ez direnak tartean sartzen baditugu. Horrela, PL1 edo PL2 lortzeko 2.077 aspiranteetatik, bakarrik %17,4k hau da, 363 irakasle lortu dute gainditzea. Urteik urterako fracaso horrek bultzatu du CCOO sindikatua beste neurri batzuk hartzeko eskatzera, jarraipenezko ebaluaketa tartean.



Goian, Monica Martin; behean, Aitor Pagalday.


# TXOKOA

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, gure bihotzeko JOKIN, domekan urte bi beteko dozulako. Amatxo, aitatxo eta etxeko guztien partez.




Zorionak, ANE Maiora, junixoko 25ian sei urte egin zenduazten-eta. Familixakuen partez.




Zorionak, SILBIA, eguaztenian urtiak egin zenduazelako. Muxu haundi bat laguneren partez.




Zorionak, UNAI, junixoko 27xan hamar urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat familixakuen partez.




Zorionak, GARAZI, gaur bederatzi urte egitten dozulako. Muxu haundi mordua aitatxo, amatxo, Alex eta familixaren partez.



Ongi etorri, BEÑAT, familixa guztiaren partez. Poztasuna ekarri deskuzu. Muxu haundi bat.



Zorionak, PATXI, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau eta muxu haundi bat familixaren partez.




Zorionak, NORA, astelehenian sei urte egin zenduazten-eta. Familixa guztiaren partez.

## zinea filmak zinea filmak zinea

### "Ice age 3" untzaga

**Zuzendaria:**  
Carlos Saldanha  
**Pertsonaiak:**  
Manny, Sid, Diego, Ellie...

Sid-ek beste gaiztozeria bat egin du eta galdu egin da. Lagun taldeak istorio berria bizi behako du; lur-azpira sartu eta disonaueroei aurre egin beharko die. Scrat, Manny, Ellie eta Diegok lagun berria egingo dute abenturan: Buck.



#### JAIOTAKOAK

- Marwa Raja Benomar. 2009-VI-4.
- Manex Alberdi Rodríguez. 2009-VI-13.
- Iruñe Mulas Pérez. 2009-VI-15.
- Nuria Lorenzo Aguilar. 2009-VI-17.
- Ainhoa Vicenzo Castro. 2009-VI-18.
- Markel Martín Cerezal. 2009-VI-23.
- Unai Anartz Román Fernández. 2009-VI-24.
- Ugaitz Goitandia García. 2009-VI-25.
- June Gisasola Zabaleta. 2009-VI-25.

#### HILDAKOAK

- Claudia Andueza Menéndez. 91 urte. 2009-VI-20.
- Jose Ramon Retana Usieto. 60 urte. 2009-VI-21.
- Eulogia Oregi Galarraga. 100 urte. 2009-VI-24.
- Pello Aranzeta Aristondo. 62 urte. 2009-VI-25.
- Jose Manuel Garrido Ferro. 84 urte. 2009-VI-25.
- Iñigo Lejarza Uriarte. 62 urte. 2009-VI-26.
- Jose Miguel Anabitarte De la Teja. 72 urte. 2009-VI-28.
- Lucia Glez. de Artaza Iduya. 90 urte. 2009-VI-30.
- Maribel Aranzeta Ormaetxea. 60 urte. 2009-VI-30.
- Jose Antonio Carrero Sánchez. 49 urte. 2009-VII-1.

## DENBORAPASAK

SUDOKUA

		5	4	6				3
	7			2				6
2			8	7				4
				4				
4		1		3	6			2
			2		7	9	4	8
					3		1	
6		2		5				7
			6			4		

1	6	7	5	9	8	4	2	9
9	2	3	7	8	4	8	5	1
4	8	5	2	1	9	7	6	3
2	3	1	4	5	7	9	8	6
8	5	6	1	8	3	2	4	7
7	9	4	8	2	6	1	3	5
3	1	2	9	4	5	6	7	8
6	4	8	3	7	1	5	9	2
5	7	8	6	8	2	3	1	4

AURREKOAREN EMAITZA

## horoskopoa

**ARIES**

Jaten duzuna hobeto kontrolatu beharko zenuke; tripako minarekin ibiliko zara hurrengo egunetan. Bero honekin gauza freskoak jatea hobeto.

**TAURUS**

Itxaroten gelditzearekin ez duzu gauza handirik lortuko. Zergatik ez duzu ematen lehen pausoa? Balentria gehiago izan beharko zenuke.

**GEMINI**

Momentu zoragarria zuretzat. Dena alde izango duzu eta inork ez dizu ahotik irifarre hori kenduko. Ea egoera honi eusten diozun.

**CANCER**

Gauza txarrei bere alde ona ikusten jakingo duzu. Horrek erakusten du zure bizi-poza eta zoriona. Ondo merezitako zerbait jasoko duzu.

**LEO**

Ez dakizu zer egin besteen atentzioa lortzeko. Baina ez al zara konturatzen nahita sahiesten zaituztela? Hain nekaqarria izango ez bazina...

**VIRGO**

Ez duzu gauza askorik behar, baina zerbaiten falta sentituko duzu. Ea konturatzen zaren zer den falta zaizuna eta aurkitzeari ekiten diozun.

**LIBRA**

Irrikitan egongo zara oporrak hartu eta hemendik alde egiteko. Krisia? Non dago? Ez dago zure oporretarako gogoak gaudituko duen krisirik.

**SCORPIUS**

Bide berriak irekiko zaizkizu, baina ondo aztertu beharko duzu zein hartu. Hobe da pentsatzeko denbora hartzea bide okerretik jotzea baino.

**SAGITTARIUS**

Zure gorputza inoiz baino ederrago ikusiko duzu, eta baita besteek ere. Udak eragin zoragarria izan du zuegan eta zure gorputzarengan.

**CAPRICORNIUS**

Gauzak lasaitasunarekin hartzeko aukera izango duzu hemendik aurrera. Atzean lagako dituzu urduritasun eta ezinegon guztiak.

**AQUARIUS**

Urteko sasoi honetan beroa izugarria da, baina hori ez da kirola egiteari lagatzeko nahikoa arrazoi. Zure osasunean pentsa ezazu.

**PISCIS**

Lehenik eta behin, zer nahi duzun argitu beharko zenuke. Bestela, alferrik zabilta, ez baituzu aurkituko bilatzen duzun hori.

**Barixakua 3****AMAÑAKO JAIK**

**19.00.-** Futbito partiduak.

**21.30.-** Bertso-afaria: Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin. Caserio tabernan.

**KONTZERTUA**

**23.00.-** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

**Zapatua 4****SANKRISTOBALIKO JAIK**

**16.00.-** Tute txapelketa.

**Domeka 5****BOLO-PALMA**

**09.00.-** Eibar Hiria bolo-palma txapelketako finalak. Azken buruzburukoa 20.00etan. Iperuako bolatokian.

**AMAÑAKO JAIK**

**11.00.-** Auzoan hildakoen aldeko meza, Goruntz abesbatzarekin.  
**14.00.-** Jubilatueendako bazkaria, Ixua jatetxean.

**KONTZERTUA**

**12.30.-** Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzagan

**ANTZERKIA**

**20.30.-** *Desdichado deleite del destino* (Zuz: Corina Fiorillo). Sarrera: 6 euro. Coliseoan.

**Martitzena 7****JAIERARAKO BILERA**

**19.00.-** Arrateko jaiak prestatzeko bilera. Portalean.

**HITZALDIA**

**20.00.-** *Cómo cuidar tu piel en verano y cómo nutrirse*. Hizlaria: Begoña Galarza. Arrate hotelean.

**UDAKO DIAPORAMAK**

**22.30.-** *Zetaren ibilbidea*. (Iñaki Kaperotxipi). San Andres elizako klaustroan.

**Eguaztena 8****TXOSNAK**

**12.00.-** Arrateko jaietan txosna ipini nahi dutenentzat bilera (eskaerak, Pegoran, hilaren 7ra arte). Udaletxeko 3. pisuan.

**UDAKO DIAPORAMAK**

**22.30.-** *Iran. Topikoen aurkako bidai* (Asier Aranzabal, Mila Gallastegi). San Andres elizako klaustroan.

**Eguena 9****AMAÑAKO DANBORRADA**

**19.00.-** Umeen danborradarako entseguak.  
**20.00.-** Nagusien danborradarako entseguak. Amañako herri ikastetxean.

**LIBURU AURKEZPENA**

**19.30.-** *Matando sueños, sembrando miedos. Morales de Toro, 1936...* (José María del Palacio Alonso eta Cándido Ruiz González). Antolatzailea: Intxorta Kultur Elkarte. Portalean.

**SANKRISTOBALGO JAIK**

**22.00.-** Toka txapelketa.

**UDAKO DIAPORAMAK**

**22.30.-** *Itsasoaren alaba* (Josu Martinez). San Andres elizako klaustroan.

**ANTZERKIA:**

*Desdichado deleite del destino*. Uztailak 5, 20.30etan.



SOLASTIAZ OSTIRALA	DOMINGUA LEHARTEA	SOLASTIAZ ZABANDA	SOLASTIAZ BETTERORRA	SOLASTIAZ BETTERORRA

## erakusketak

- **Uztailaren 4tik 10era**

**LAMBRETTA** motorren erakusketa.

Herriko dendetan.

- **Uztailean**

**JEDD NOVATT**-en eskulturak.

Alfa Arten.



Jedd Novatt.

## lehiaketak

- **Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketa.**

Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte.  
Informazioa: Pegoran.

- **Asier Errasti Eibarko X. Laburmetraia Jaialdia.**

Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte.  
Informazioa: Pegoran.

## famaziak

**5, barixakua**

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**6, zapatua**

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**7, domeka**

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**8, astelehena**

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**9, martizena**

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)

**10, eguaztana**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**11, eguena**

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**12, barixakua**

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

## lehiaketak

**LI (BURU-HAUSGARRIAK).**

Ekainaren 14ra arte,  
Juan San Martin Liburutegian.

## bekak

**VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA.**

Ikerketa esparrua: Artea.  
Eskaerak eta informazioa: Irailaren 1etik  
urriaren 11ra, Pegoran edo Portalean.

## diru-laguntzak

**UEU-KO IKASTAROENTZAT.** UEUko  
Udako Ikastaroetarako matrikularen %50.  
Eskaerak eta informazioa: Abenduaren  
31a baino lehen, Pegoran.

## telefono jakingarriak

SOS deiak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiko). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etatik 21.55-etera orduerdiko. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

## tren ordutegiak

**EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Urkizu aldean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi, balkoi bi eta despentsa. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Igoailua eta elbarrituentzako plataforma. Tel. 605-765618.

– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

### 1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Merke. Tel. 659-148649. Angelica.

– Eibarren pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Dena kanpora begira eta berriztu berria. Deitu 15.00etatik 16.00etara eta 21.00etatik 22.00etara. Tel. 943-208683. Maria.

– Bidebarrieta 28an pisua alokagai. Logela bi. Tel. 652-764566.

– Eibarko erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 685-753512.

– Eibarko behe aldean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 690-980846.

– Eibarko erdialdean logela alokatzen da. Tel. 686-286110.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Renault Clio RL 1.2 salgai. 55cv. Urdira. 1998koa. 123.700 km. Tel. 686-703907.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garajea eta trasteroa alokagai Errebalgo etxe berrietan. Merkatu Plazaren ondoan. Tel. 687-800230.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 689-566581.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 628-734785.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egin, garbiketa lanetarako, sukalde-laguntzaile moduan edo kamarero. Tel. 662-037553.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik.

Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile edo igeltsero moduan eta zama-lanetarako. Tel. 635-016941.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-343612 edo 943-531931.

– Emakumea eskaintzen da uztaila, abuztua eta irailan umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-841158. Doris..

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 667-098837.

– Barne-dekoratzailea eskaintzen da proiektu erreformak eta obra barik egin beharreko lanak eramateko. Prezio ona. Tel. 616-144262.

– 41 urteko emakumea eskaintzen da etxeak, tabernak, soziedadeak eta eskolarak garbitzeko. Tel. 653-010861.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 667-965338.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.

– Haur Hezkuntza ikasten diharduen neska umeak zainduko lituzke ekaina eta uztailan. Esperientzia. Tel. 626-752117.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, kamarera moduan edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 617-056828.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Tel. 638-711269.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Esperientzia. Tel. 638-482478 edo 638-732436.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero moduan... Tel. 671-358513.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 626-954671.

– 31 urteko emakume eibartarra eskaintzen da abuztuaren 7ra arte edozein lanetarako. Tel. 659-651010.

– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 18.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 626-670510 edo 616-397348.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 648-143804.

– Neska eskaintzen da egun erdiz umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Urteetako esperientzia. Tel. 616-727433. Amaia.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta informea. Tel. 626-335024 edo 943-254459.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 627-540583.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-265293.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195 edo 943-531903. Aida.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko edo nagusiak zaintzeko. Interno edo externo. Tel. 677-112824.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako arratsaldero ordu bi. Tel. 648-196651.

– Emakumea eskaintzen da astelehen, astearte eta ostegunetan 14.00etatik 18.00etara garbiketa lanak egiteko. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-476869.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-690415.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-555959.

### 4.2. Langile bila

– Familia euskaldun batek au-pair behar du Londresen irailetik aurrera. Tel. 00447768243191 edo mirenlondon@hotmail.com

– Sukaldari-laguntzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 943-121262.

– Kamarera/o eta sukaldari laguntzailea behar dira Arraten. Tel. 677-638184.

– Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Egongelarako altzariak salgai. la berriak. Prezio onean. Tel. 943-120308.

– Birentzako ohea (1'50x1'90) salgai, alboko lau kaxoiekin, eta Pikolin koltxoia. 1.100 euro. Oheko arropa opari. Tel. 943-202174.

– Aplike bi eta lanpara jokora salgai, berritakoak (80 euro). Baita gaueko-galana (50 euro). Tel. 943-202174.

– Logelarako armairu txikia (1'80x0'35x0'60) salgai. Gaztainondokoa. 100 euro. Gortinak opari. Tel. 943-202174.

– Autorako Kenwood markako CD-irratia salgai. Oso prezio onean. Tel. 666-648317.

– Waeco markako auto edo furgonetarako izozkailu termoelektrikoa salgai. 32 litro. Tel. 666-648317.


### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Ekainaren 17an, Urkizuko parkean, umearen urrezko pultsera agertu zen. Deitu ...eta kittol-ra. Tel. 943-200918.

### 6.4. Bestelakoak

– Ume-jaioberriarentzako bigarren esku-kotxea erosiko nuke. Tel. 609-918803.

– Ume-jaioberriarentzako bigarren esku-kotxea erosiko nuke. Tel. 696-717968.



## EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

EUSKO JAURLARITZA



Eibarko HEOk matrikula ofiziala uztailak 7-24 eta irailak 1-7 artean izango dela adierazten du

- Maila Probak Eskolako web orrian egin ditzakete ikasle berriek

Informazio gehiago:  
943 20 06 18 telefonoan  
eoieibar@euskalnet.net  
[www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net)

3 pote  
soluzio bakarra +  
lentilak 6  
hilabeterako



## 6 hilabeterako lentillen pack-arekin, eramaizu oparia

*askatasuna zure begiradan*



Ereba 14 20600 Eibar  
GIPUZKOA 943 207 137  
[plazola@naturaloptics.com](mailto:plazola@naturaloptics.com)

**natural optics**

AV. ZARA, NATURAL ZARA

[naturaloptics.com](http://naturaloptics.com)

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak

**Klase teoriko  
zein praktikoak**  
norberak nahi  
dituenean

Klase teorikoak  
**ikusentzunezkoen  
abantailak**  
erabilita

Merkantziak  
eta bidaiariak  
garraiatzeko  
**nazioarteko**  
agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO  
KARNET  
GUZTIAK**

# SOLOZABAL


autoeskolak

**Estaziño kalea, 8  
Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA: T. Etxebarria, 7    Tel. 943 70 23 84**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea    Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK